

50. GOSE GREBA EGUNEAN BISITA DEBEKATU ZIETEN GOROSTIAGA, ORTUONDO ETA KRIVINE EURODEPUTATUEI

Arizkuren «konplikazio larrien bezperan» dagoela diote Hotel Dieuko sendagileek

■ Josetxo Arizkurenen egoera larriaren berri eman zien medikuen zerbitzuburuak Parisera joandako diputatuei


■ Hiru orenez itxaron ondoren, «osasun arazoak» zirela medio, debekatu egin zieten hiru eurodiputatuei bisita

■ Presoa Baionako ospitalera eramatea galdegin zuten, presoek Euskal Herriratzearen lehen keinu gisa

Hur Gorostiaga / Paris
Berriemaile berezia

NOTRE DAME katedraletik bi pausotara dago Hotel Dieu erietxea, eta seigarren solairuan dagoen burdinezko atearen aitzinean hiru oreneko goaitatzeak ez zuen fruiturik ekarri. Ospitaleko sendagileen zerbitzuburuak «osasun arazoak» argudiatu zituen Koldo Gorostiaga (EH), Josu Ortuondo (EAJ) eta Alain Krivine Liga Komunista Iraultzaileko eurodiputatuei bisita debekatzeko. Josetxo Arizkuren preso gose grebalariaen egoera ahulean edozein neguko birusek «kalte garrantzitsuak» eragin litzakeela erranez debekatu zien Loic Capronek sarrera.

Osasun arazoa aitzakia gisa agertu zen hastapenean, erietxeko arduradunek ez baitzuten inolako asmorik agertu bisita egin zedin. Hala ere, Capron Barne zerbitzuetako medikuen buruak emandako datuek egoera kezkarriaren berri adierazi zuten. «Momentuko, ongi eusten dio gose grebari, baina mugako egoera batean gaude. Ustekabeko konplikazio larrien bezperan gaude. 20 kilo galdu ditu eta oso ahul dago. Bere egoeraz jabeturik, Arizkuren jaunak bitamina batzuk onartu ditu bere egoera orekatzeko, bai-



BOB EDMÉ

Koldo Gorostiaga, Josu Ortuondo eta Alain Krivine europarlamentarioak, Arizkuren dagoen gelaren aurrean.

na, hala ere, gorputzak 50 eguneko gose greba darama eta horrek sekulako kalteak eragiten ditu», zehaztu zuen, egoera horretan luzatzerik ez zuela konpreniarazirik.

Zuzenean berarekin mintzatu ezinik, hiru eurodiputatuek beren elkartasun mezua helarazi zioten, «euskal presoek Euskal Herriratzearen alde gizaratearen eskaera geroz eta nabariagoa» dela erranik, eta gai horretan «PP, Es-

paniako eta Frantziako gobernuak geroz eta bakartuagoak» daudela erranik. Medikua barnera sartu, eta Arizkuren pasatu zion mezua, eta itzulian, presoak helarazitako eskerren berri emaz zien hirurei.

«Frantziako Gobernuari galdegiten diogu lehenbailehen Arizkuren Baionako erietxera eramana izan dadin. Ekimen horrek Frantziako presondegieta dauden eus-

kal presoek Euskal Herriratzearen lehen urratsa izan beharko du», erran zuen Gorostiagak. «Frantziak hartutako bideari Espainiak berehala segituko lioke».

Josu Ortuondok Batera plataformaren baitan kokatu zuen bisita. «Bortizkeriak ez garamatza inora, ez ETarenak ez eta estatuenak ere. Baketze klabeetan pentsatu behar dugu. Presoen sakabanaketak ez du bake prozesurik lagun-

KOLDO GOROSTIAGA

■ ■ ■ «Arizkuren Baionako erietxera eramatea presoek herriratzearen lehen urratsa litzateke»

JOSU ORTUONDO

■ ■ ■ «Espainiako eta Frantziako agintariei galdegiten diet irlandar eta ingelesek tamaina politikoa izateko politikoa izatea

Sotero Etxandiri egitekoa zioten bisita egotzi zieten Batera-koei Iruñeko espetxeko arduradunek

Alberto Barandiaran / Iruñea
ESKAERA egitean irregular-tasunak egin izanaren aitzakiaz, Iruñeko espetxeko arduradunek ukatu egin zieten atzo Batera-ko ordezkariari Sotero Etxandi bisitatzea. Espetxeko segurtasuneko zuzendariordeak Jose Antonio Urbiolari (EAJ) jakinarazi zionez, eskaera Etxandik berak egin behar zuen, edo bestela erabakia

espetxeko zuzendariak hartu, eta hau bertan ez zegoeenez, ez zen baimenik eman. Espetxearen aurrean azaldu ziren, Urbiolaz gain, Koldo Amezketa (EA), Pernando Barrena (EH), Jesus Mari Gete (LAB), Santi Ugarte (ELA), Esther Lakasta (Senideak) eta Josu Beaumont (ABB). Sotero espetxean da larunbatz geroztik, orduan utzi baitzion gose grebari.

Urbiolak berak adierazi zuenez, bi helburu zituen bisitak, bata, gizalegezkoa, eta bestea, Espainiako Gobernuak daraman kartzela politika salatzeak. «Erakusten ari da porrot erabatekoa gertatzen ari dela preso bakoitzaren kasuan oinarritutako politika hori». Gaineratu zuenez, baikortasunerako izpirik ez dago.



JOSEBA OLALDE

Batera-ko kideak, atzo, Iruñeko espetxearen aurrean.